



Enpresetako planen deskarguak



Oarsoaldea
eskaldunen garapenerako elkarte, l.a.
sociedad de desarrollo comarcal, s.a.

Euskara Batzordea berriz elkartu da. Sistemako gainerako inprimakiak euskaratzeko prozedura argitu da. Kalitate sistemaren jarraipen tresnaren arduradunarekin hitz egingo da hizkuntza kontuak ere jaso ditzaten. Euskarazko softwarearen ezarpenari jarraipena egin zaio, prozeduren adierazleak jorratu ditugu eta oraingoz prozeduren jarraipena barne auditoriekin egitea adostu da.

EMUNeko teknikaria: Maitane Iribar
Koordinatzaileak: Joxe Luix Agirretxe

G-30

Euskara Batzordera kide berri bat gonbidatu dugu, langileen ordezkari bat, eta bere partehartzerako baldintzak adostu ditugu enpresarekin. Trebakuntza planean sartuta dauden langileek ikasketa kontratua sinatu dute enpresarekin. Udalean aurkeztu den proiektua oso osorik bi hizkuntzetan aurkeztu da eta euskara planaren oinarriak ere txertatu dituzte.

EMUNeko teknikaria: Maitane Iribar
Planaren koordinatzailea: Iratxe Osés



Laneko prozedurak euskaratzen dihardugu. Gainerakoan, langile batekin hitzordua jarri da haiek darabilten dokumentazioaren gaineko azterketa bat egiteko. Amaitzeko, eta aurrera begira planak nondik nora joan behar duen aztertzeko, bilera bat egiteko asmoa dago.

EMUNeko teknikaria: Xabier Apaolaza
Planaren koordinatzailea: Mikel Rojo

OLAkariaren zabalkundea

Maiatzeko alea berrikuntzekin dator

OLA Planaren komunikaziorako tresna da OLAkaria. Berripaper hau 2 hilean behin argitaratzen da eta oraingoa 12. alea da.

OLA Planeko enpresek aurrera eramaten dituzten ekintzen berri emateko helburua du OLAkariak.

Oarsoaldeko Lan Mundua euskalduntzeko urrats bat da OLA Plana. Urrats horretan eragile ugari daude eta guzti horiei zabaldu nahi diegu OLA Planaren berri izateko aukera.

Hori dela eta, zenbaki honetatik aurrera, OLAkaria honako eragileok jasoko duzue: Pasaia eta Oiartzungo Udaletako Euskara Batzordekideek, Lezoko Alkateak, Udaletako Euskara Teknikariek, Don Bosco ikastetxeko ordezkariak, ELA eta LAB sindikatuko eskualdeko arduradunek, OLA Planean sartuta dauden enpresetako ordezkari, Koordinatzaile eta Euskara Teknikariek.

Beraz, **ONGIETORRIA** ematen dizuegu denoi!!



Automation Products, S.A. Niessen Unit

Eskolak emango dituen Euskaltegia Formazio Batzordeak ilazki izango dela onartu ondoren, deialdi zabala egingo zaie langileei eskoletarako izena eman dezaten. Gainerakoan, motibazioa lantze aldera, euskal kantu afaria egingo da Niessen elkartean. Euskara Plana denengana (erdal eta euskal hiztunengana) iristea garrantzitsua dela iritzi diogu, eta horretarako laguntzaileen bilerak erabiliko ditugu; Euskara Batzordeko kideek orain arte egindakoen eta aurrera begirako asmoen deskargua egingo dute.

*EMUNeko teknikaria: **Xabier Apaolaza***

*Planaren koordinatzailea: **Oskar Arantzabal***



Euskara Eskolak antolatzeko deialdia eta izen ematea ireki da. Asmoa lantegian bertan modulu labur batzuk antolatzea da. Bestalde, Tajoko Batzar Nagusia dela eta, zenbait dokumentu euskaratzen aritu gara. Euskara Planeko helburuei jarraiki lantegian euskararen txokoa izena duen ohar taula bat jarri da, bertan planarekin harremanetan dagoen edozein informazioa jarriko da (Euskara Batzordearen komunikazio eta erabakiak, planaren garapenaren adierazleen grafikoak, Euskara Planetako beste enpresen informazioa, ideiak, argazkiak eta bestelako ekintzen kronikak...). Gainerakoan, datozen Euskara batzordeetan Gestio Planeko helburuak lotzen jarraitu nahi dugu.

*EMUNeko teknikaria: **Xabier Apaolaza***

*Planaren koordinatzailea: **Ane Aldaraborda***

Sindikatuekin harremanak

Bilera ELA eta LABeko eskualdeko arduradunekin

Maiatzaren 12an urteko bigarren bilera izan genuen.

Bilera honetan enpresako Hitzarmenetan enpresa OLA Planean sartzeko eskaera gehitzeko ekintzaren balorazioa egin zen.

Enpresa batzuetan puntu hori ez dute Enpresako Itunean sartu. Beste batzuek sartu dute baina gero, Hitzarmena negoziatzerakoan, atzera bota da. Beste enpresa batzuetan aukerak daude puntu hori enpresako Hitzarmenean sartzeko.

Aurrera begira indarrak batu eta esfortzua bi enpresatan egitea erabaki da. Bi enpresa horiek SALVA eta AMCOR FLEXIBLES dira. Eskualdeko arduradunek enpresa horietako langileen ordezkariekin hitz egingo dute eta gai hau aurrera nola eman aztertuko dute.

Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuak OLA Planaren inguruko informazioa eta laguntzen berri emango die arduradun hauei.



eraikuntzak
OTEGUI-GAZTANAGA S.L.
construcciones

Kalitate sistemako zenbait inprimaki euskaraz ere ipini ditugu, irudi korporatibo berrira ere egokituz. HPSko diru-laguntzak zurrizko itzulpen gehiago egin ditugu eta koordinatzailearen trebakuntza planarekin jarraitzen dugu.

EMUNeko teknikaria: Maitane Iribar
Planaren koordinatzailea: Pilar Otegui



Eskolak martxan jarriko ditugu. Momentuz euskaraz ezer ez dakien talde bat hasiko da 20 orduko modulu bat egiten. Jendea gogotsu dago eskolak hartzeko. Gainerakoan berripaperaren bigarren alea banatuko da nominarekin batera; helburua euskararen aldeko motibazioa zabaldu eta planaren berri guztiengana iristea da. Euskara Batzordean 2006ko gure Gestio Plana kudeatzen jarraituko dugu.

EMUNeko teknikaria: Xabier Apaolaza
Planaren koordinatzailea: Fernando Etxezarreta



Gerentea eta pertsonal arduradunari euskararen gaineko diagnostikoa aurkeztu zaie eta 2006ko ekintza plana adostu da. Dendako birgaitze lanak direla eta errotulazio finkoa berrituko da: horretarako errotulazio irizpideak adostu ditugu eta orain itzulpenak ari gara egiten.

EMUNeko teknikaria: Maitane Iribar
Planaren koordinatzailea: Olatz Amonarriz

Diru-laguntzak

2006ko diru-laguntzen eskaera egiteko deialdia

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak enpresatako Euskara Planak aurrera eramateko diru-laguntzak banatzen ditu.

Diru-laguntza hauen deialdia aurki, maiztean bertan, kaleratzea espero da. Argitaratzen den unetik hilabeteko epea egon ohi da beharrezko eskaerak aurkezteko.

Diruz laguntzen diren gaiak ondorengoak dira:

- Lehenengo euskara-plana.
- Testuen itzulpena eta egokitzapena.
- Aldibereko itzulpenak.
- Trebakuntza.
- Softwarea.
- Planaren jarraipena.
- Planaren ebaluazioa.

Orain arte bezala, OLA Planeko enpresen diru-laguntza eskaerak Oarsoaldeko Euskara Zerbitzutik bideratuko dira.